

## Txirrindularitzak antolatu gabe duen bira



**AINHOA AZURMENDI**  
EHU-KO IRAKASLEA ETA  
KIROL AHOLKULARIA

**B**erriki sarean kritikak irakurri ditut, Euskal Herriko Itzulian azafatak ez egotea erabaki zen arren, EAEko hamaika ekitalditan oraindik ere emakumeak rol horretan jardun dezaten kontratuak izaten direla. Gogoan dut halaber, txirrindularitzan erabaki hura hartu zenean norbaitek emakumeek lana galtzeko arriskua zegoela mahai gainean jarri izana. Harritzen nau auzi horren bueltan azalpenak ematen ibili behar izatea, arazoa ez baita haiek egiten dituzten funtzio horiek guztiak desgertaraztea, lana egiteko betearazten dituzten baldintzak baizik. Hots, bularreko tamaina zehatza eta ile luzea edukitzea, edota gona eta takoiak erabili behar izatea, arropa eta oinetako erosoak erabili ordez. Horretaz gain kontuan hartu behar da txirrindularitzan, pilotan edo motozikelismoan bete behar duten gizonen zerbitzari rola. Azken batean, gizarte matxista batean eraikitako emakume erakargarriaren estetika bermatzea, jarrerara pasibo batean itxura polita emanez. Horrelakoetan ikuspegi ezberdinetatik begiratu behar zaio gaiari: batetik, kontratazioa egiten duen erakundearen erabaki-hartze organoa nork osatzen duen eta zein baloretan oinarritzen den kontuan hartuz. Eta, bestetik, feminismoaren kontzientzia ez duten azafata horietako batzuek nola haien askatasu-

na eta lanaren duintasuna defendatzen duten; nahiz eta tartean, gainera, jazarpen sexuala pairatu behar izan duten –gogoratu Peter Saganek 2013an azafatari ipurdia ukitu zionekoa, edo Rigoberto Uranek 2018an azafatari masailean muxua exijitu zionekoa-. Txirrindularitzan emakumeen gorputza sexualizatu bidez eragin diren diskriminazio egotza gehiago datozkit burura, esaterako, 2014an Kolonbiako emakumezkoen selekzioari haragi koloreko maillota jantzarazi izana, edo aurtan UCIko *Health Mate Ladies Team*-eko hiru emakume txirrindularik taldeko zuzendariari haiek sexualki jazartzea egotzi izana. Zer esanik ez, kirol arloaren egituraketan aurkitzen diren mugez, hala nola, lizentzia kopuru txikia, emakumeek lasterketan jokatzeko dituzten baldintzak, amatasuna, sariak eta abar. Horrek guztiak adierazten duena da txirrindularitza tradizioz gizonen eremua izan dela, eta azafaten gaia piramidearen ertza besterik ez dela. Beraz, goitik behera berregituratu beharko litzateke, estamentu guztietan emakumeen partaidetza bultzatuz eta haien jarduera duinduz, eta benetan emakume eta gizonen berdintasuna sustatuz. Eta erakunde publikoen egitekoa litzateke bira horretan bidelagun izan eta jarduera guztian berdintasun irizpi-deak betetzen direla bermatzea. ●

## Pribilegioez



**CASTILLO SUAREZ**  
IDAZLEA

**C**lara Peya piano-jotzaileari Kataluniako Kultura Sari Nazionala eman diote berriki. Oroigarria besoetan, pribilegiatua izan dela esan du, eta eskerrak eman dizkio bere amari, piano bat izan duelako etxean, orduak eta orduak eman dituelako entseatzen, ez zuelako inor zaindu behar eta ez zuelako taberna batean lanean aritu behar izan dirua atera ahal izateko. Nik ere badut piano bat gurasoen etxean. Liburuz inguratuta jaio naiz. Gure ama irakurtzen ikusi dut noiznahi. Gure aitak Euskal Herriko museo, santutegi eta erakusketa guztietara eraman gaitu. Ni

ere pribilegiatua naiz, eta beharbada horregatik idazten dut. Hala ere, ezagutu ditut idazle bikainak libururik izan ez dutenak etxean: Valter Hugo Maek kontatzen zidan *Biblia* besterik ez zutela etxean, zapi batean bilduta edukitzen zuela haren amonak, eta amari liburu bat erosteko konbentzitzea izugarri kostatu zitzaiola. Antonia Vicensek ere ez zuen libururik etxean, eta bat eskatu zuenean etxeok osasun etxera eraman zuten. Peyak artea iraultza politiko eta sozialerako tresna dela esaten du. Eta hori bada pribilegio bat, ez dagoena denen eskura. ●